



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2018-09-12

BILERA ZENBAKIA:52

ORDUA ETA LEKUA: 19:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Erkuden, Leire, Ruth, Mainer, Itziar.

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA.

2. FESTAK.

3. EGUTEGIA.

4. 2019RAKO AURREIKUSPENAK.

5. ALDIZKARIA

6. BESTEAK

1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA.

Azkeneko akta onartu da.

2. FESTAK.

Hanburgesa janerako egin beharreko erosketak adostu dira.

- Hanburgesak:
 - Oilasko haragia: 100
 - Txekor haragia: 150
 - Begetalak: 30
- Letxuga: 2 pakete
- Kipula potxatua: 2 pote
- Serbiletak: 300
- Olio: txanbil 1
- Mahonesa eta keptxupa.



- Gazta: 250 lontxa.

Udalean eskaera egin da: sua, bonbona beteak, bandejak, txapak, mahaiak, aulkiak, etab.

Soberan den janaria ez gordetzeko erabakia hartu da, momentuan banatzekoa. Egindako erosketen fakturak udalera bidaliko dira, bertatik egiteko ordainketa.

Gizarte Zerbitzuetan baliabide gutxi duten pertsonen artean banatzeko tiketak uztearen inguruan hitz egiten da, erabiltzaile batek eskaera egin duelako. Hitz egindakoa honakoa da:

- Paella jana: 10 tiket emango dira banatzeko. Argi utziko zaie paella dagoela jateko eta postrea etxetik eraman beharra dagoela.
- Hanburgesa jana: Laguntzera gerturazten den pertsonen artean tiketak banatuko dira.

3. EGUTEGIA

Argazki batzuk jada atera dira eta forma hartzen ari da.

4. 2019.RAKO AURREIKUSPENA

Datorren bileran hitz egingo da helburuez. Lan eta ardura banaketa egin da:

- Elikagai bankua: Leire.
- Gimnasia eta tipi tapa: Jabi.
- Memoria tailerra: Maider.
- Harrera eguna + akta : Itziar


5. ALDIZKARIA.

Aldizkarirako lanak banatu dira.

6. BESTEAK

Euskara klaseak:

Aukera dago Itsasondon euskara ikasteko talde bat egiteko. Aek-k eskainia. 800 euro dira urtean gutxi gora behera, asistentzia 3/4ekoa bada kantitate horren zati handi bat itzuli egiten da. Etxe bakoitzera bidali da matrikulazio prezioen esku orria. (Maddi). Aisa programa ere badago, atzerritarrei zuzendutakoa.



Interesa izan dezaketen pertsonekin harremanetan jartzekotan geratu gara.

Elikagai bankua: Erabiltzaileekin funtzionamendu berriaren aurkezpen bilera egingo da.

Guztion herria: Herri diagnostiko bat egingo da eta horretarako galdetegi bat pasako da. Galdetegi horri ongizatearekin lotutako galderak txertatu behar zaizkio. Leire eta Mainerrek galderak idatziko dituzte, eta taldekide bakoitzak bere aportazioa egin.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Aldizkaria	Irailak 29	Maider (topaketa), Ruth (elkarrizketa), Gizarte Langilea (esku orria)
Euskara klasetan interesa izan dezaketenei deitu	Irailak 29	Gizarte Langilea.
Herri diagnosirako galdetegia	Irailak 25	Leire, Maider, besteok.

HURRENGO BILERA

2018ko urriaren 10ean egingo da 19:00etan Udaletxean:

Jorratuko diren gaiak:

- Aurreko aktaren onarpena.
- Etxeko lanak.
- Festen balorazioa.
- 2019rako plangintza
- Egutegia